

2012ko urtarrilaren 26an, Sopuertako Udaltzako (ohiko osoko bilkuran eratu zen), legeak xedatzen duen eratzeko eta bozkatzeko quoruma izanik, honako akordio hauek hartu zituen:

1.- HALA BALEGOKIO, AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONESTEA: 2011ko AZAROAREN 24koa (7/11 ZENBAKIDUN OHIKO BILKURA) ETA 2011ko ABENDUAREN 26koa (7/11 ZENBAKIDUN EZOHIKO BILKURA).

EBAZPENAK.

2.- AUZITEGI GORENAREN ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO SALAK 4482/2007 ZENBAKIDUN KASAZIO-ERREKURTSOA DELA ETA, EMANDAKO EPAIAREN BERRI EMATEA: EPAIAK ERREKURTSOA GAITZETSI DU. BERAZ, EZ DA KASAZIORIK EGINGO, ETA HELEGILEAK (SOPUERTAKO UDALA) KOSTUAK ORDAINDU BEHARKO DITU.

3.- ESTEBAN CALVO ARCO JAUNAK JARRITAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSO ARRUNTA (122/2010 ZK.) DELA ETA, BILBOKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 5 ZENBAKIDUN EPAITEGIAK EMANDAKO 404/2011 ZENBAKIDUN EPAIAREN BERRI EMATEA. EPAIAK GAITZETSI EGIN DU ESTEBAN CALVO JAUNAK JARRITAKO ERREKURTSOA, ETA ADMINISTRAZIO EGINTZA ZUZENBIDEAREKIN BAT DATORRELA ADIERAZI DU. HALABER, EZ DA KOSTURIK JARRIKO.

4.- “GALDAMES ETA SOPUERTA ARTEAN BIDEA ERAIKITZEKO” AZPIEGITURAREN ENTREGARI BURUZ UDALBATZA OSOAK 2011KO AZAROAREN 24AN HARTUTAKO ERABAKIA DELA ETA, INGURUMEN, LANDAGUNE ETA ITSAS INGURUETAKO MINISTERIOAK EMANDAKO ERANTZUNAREN BERRI EMATEA.

5.- SOPUERTAKO UDALAREN ETA ENKARTERRIALDEREN ARTEKO HITZARMEN PROPOSAMENA, BIDE BERDEA KUDEATZEKO, DINAMIZATZEKO ETA HEDATZEKO HELBURUA DUENA, JAKINARAZTEA ETA, HALA BALEGOKIO, ONESTEA.

6.- UDAL ERROLDAREN BERRAZTERTZETIK ATERATAKO BIZTANLERIAREN ZIFRA OFIZIALA JAKINARAZTEA (2011KO URTARRILAREN 1A).

7.- HALA BALEGOKIO, BESTE ERAKUNDE BATZUEK (PUBLIKOEK ZEIN PRIBATUEK) EMANDAKO LIBURU INFORMATIBOAK SUNTSITZEKO PROPOSAMENA ONESTEA.

8.- HALA BALEGOKIO, EL ALISAL AUZOKO ZENBAKIKUNTZA BERRIA ONESTEA.

9.- HALA BALEGOKIO, BEHIN BETIKO BAJA EMATEA GESMUNPAL S.A. ENPRESAK IGORRITAKO ZERRENDAN AZALTZEN DIREN ZORDUNEI.

10. ENKARTERRIKO PAISAIARI BURUZKO DIAGNOSTIKOAREN ETA INKESTAREN BERRI EMATEA

11.- LEHEN HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO LEHEN URTEA JARTZEKO GAIA JORRATZEA.

12. HALA BALEGOKIO, ONESTEA ZERBITZU TEKNIKOEI IKUSKAPENA EGIN DEZATELA ESKATZEA ARENAO AUZOA ANTOLATZE ALDERA (DISEINUA ZEIN HIRIGINTZA-ERABILERA) ETA BIDEKO ZIRKULAZIOA ANTOLATZEARI BEGIRA (BIDEEN DISEINUA ETA ZIRKULAZIOAREN NORAKOA).

13.- HALA BALEGOKIO, GAROÑARI BURUZKO MOZIOA ONESTEA.

KONTROLA.

14.- AZKENEKO OHIKO OSOKO BILKURATIK HONA ERABAKI DEN GUZTIAREN LABURPENA.

15.- ESKARIAK ETA GALDERAK.